

Horoskopoa

Xabier Gantzarain

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2002



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Horoskopoa

Xabier Gantzarain

Julene Azpeitia 15. ipuin lehiaketa

2002

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Xabier Gantzarain (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

-I-

Idazlea neu nintzela eta horoskopoa bezalako langintza sortzaile eta jasoak egin beharko nukeela bota zidan euskara elkarteko lehendakari eta, elkartearen ekarpen nagusizat geneukan herri aldizkariko euskara zuzentzaileak. Ez dakit niganik zer egiten zitzaion jasanezin eta arbuiagarri, zerk bihurtzen ninduen oker bere begietara, baina badakit sutu egiten zuela ni beti potroak ukitzeko prest egoteak, potroak ukituren bi adiera hedatuenetan egon ere. Etxerako lanak berant ematen nituen eskuarki, azken momentuan, eta erredakzioan zerbait inprobisatzen ere zeharo makala nintzen, maketatzailea hilerok zain edukitzen duten idazle-usteko morroi horietarik, eta egia esan, atsegin nuen ezer egin gabe egotea, potroak ukitzea. Baina nire hobenez damutu ez, eta gainera gure lehendakari txit gorena zirikatzen ausartzeak haserretzen eta erretzen zuen. Lepoko zainak estututa hitz egiten zidan, eta nik orduantxe ukitzen nizekion, metaforikoki, noski, potroak. Errukirik gabe jotzen nion adarra, gaiztoz. Badirela munduan zorigaitzak ugari, baina ez zela ederra izango bere ikasle izatea pare bat urtetan jarraian, esaten nion adibidez, lehendakaria batxillerreko irakaslea baitzen alboko herrian. Nabarmen uzten genuen asko maite genuela elkar. Ezin eraman nezakeen ohitura erabat burgesa zuen, sugus markako goxokien koloretako papertxoek bilduma egitea. Burgesak gauza guztiekin egiten ditu bildumak: batek etxeak, beste batek maitaleak, eta beste batek jan dituen, edo okerrago, jatera iritsi ez den goxokien papertxoak. Egunero galtzen ditugun aukerek eta denboraren joan-etengabeak sortzen duten ezinegona baretzeko goxokien papertxoak biltzeari zentzugabeko neritza, baina neure onetik ateratzen ninduen ez zen hori, ez zen azkenean ohitura burges hori, bera halako zozokeriekin lasaitzen ikustea baizik. Izan ere, bizitzari gehiegi eskatzen ez dion batek, inoiz ezer zalantza jartzen ez duen batek, inoiz euskara elkarte bateko lehendakari izango ez litzatekeen batek halakoak egitea ulertuko nuen, baina bera hori baino askoz azkarragoa zen, eta horrek ematen zidan min. Horrek, eta bere paroxismoarainoko egoskorkeriak. Berak beti zuen arrazoi, bera ez zen inoiz erratzen. Aurre-juzkuz beteta zegoen, eta edozein konturekin itsutzen bazen ere, emakumeen aurka jardutea maite zuen bereziki. Ezin omen zuen munduko emakume bakar batek ere zentzuzko ideia, pentsamendu edo asmorik izan. Ez omen zuten ezertarako balio. Berak bazekien esaten zuenak ez zuela ez hankarik eta gutxiago bururik, baina behin eta berriro errepikatzen zuen, sarritan, aldaketa haizeak zekartzaten neska taldean sartu berriei hitz egiteko gogoak kentzeraino. Eta ez zen konturatzen, antza, zenbaterainoko higuina sor dezakeen, zenbateraino unatzen gintuen jardun harekin.

Beraz, idazlea neu nintzela eta horoskopoa bezalako langintza sortzaile eta jasoak neuk egin beharko nukeela bota zidanean, beste guztien harridurarako, pozik eta gustura hartu nuen proposamena, bera amorrarazteagatik bakarrik izan bazen ere. Baietz, idatziko nuela eta ea zein zen bere horoskopoa besterik ez nion esan, zigarroa iziotu eta bileratik ospa egin aurretik. Atea ixtera nindoala entzun nion, garaipen eder bat dastatzen ariko balitz bezalako ahots batez, Taurus nauk. Eta pentsatu nuen hain egoskorra izanda ezin zuela besterik izan. Taurus, jakina, esan nuen neure golkorako. Eta irribarre bat loratu zitzaidan ezpainetan.

Kontua da batere ilusiorik gabe hartu nuela herri aldizkarirako horoskopoa idazteko gonbita. Ez nuen sinisten horoskopoa, ez dut uste egun batean jaiotzeak zure bizitza baldintzatzerainoko eragina izan dezakeenik; iruzur galanta iruditzen zitzaidala, alegia. Bazkalondo aspergarrietan, etxera joateko alperrez nengoela baino ez nuen nik irakurtzen horoskopoa. Astean bost aldiz edo. Garai hartan, ia egunero bainintzen tabernako aulkiei eta pentsamendu ganorabakoei fermuki lotzen. Orduak eman nitzakeen egin beharrekoa atzeratzen. Beste zerbait egiteko estakuru bila. Halakoetan, bizitzak zer gordeko ote zidan galdetzen nion neure buruari, eta horoskopoa irakurtzen nuen egunak zer eman zezakeen jakin nahian. Iniziatiba hartzeko ezinaren ondorioz, uste dut, bukatu nuela patuan sinisten. Ez zen sinismen itsua. Edozer lortzeko lan egin behar dela nekien arren, banekien baita ere, bizitzak geure gain ez dauden erabakietan beti ematen dizkigula ezustekoak. Gizaki bezala gauzarik garrantzitsuena neure buruaren jabe izatea neukan eta dudan arren, badakit besteek ere egiten gaituztela, osatzen gaituztela; ezin dugula egin ezer bakarrik. Behar dugula ibili ezezagunaren xerka. Etorkizunak, ezezaguna zaigunean izutzen gaitu, eta izurik ez denean ere, bada halako ezinegon bat beti, ezin duzulako jakin zer gertatuko zaizun, edo areago, ezin duzulako jakin munduan gehien maite duzunari zer gertatuko zaion, nolako fortuna izango duen. Ezin duzulako aurreikusi amaiera, ezin jakin ama noiz amatatuko zaizun.

Horoskopoak lasaitu egiten ninduen batzuetan, dena gaizki aterako zitzaidala esaten zuenean batez ere, horrela bai bainean, ezer egin gabe egoteko, potroak ukitzeko neure buruari iruzur egitea. Jakin banekien eta, azken batean, horoskopoa, norberak bere buruari iruzur egiteko dugun ahalmen eskerga horren beste produktu bat zela. Eta neuk ere irakurtzen nuen arren, arinki gorroto nuen egunkarietatik horoskopoa baino irakurtzen ez zuen jendea.

Baina orain neuk idatzi behar nuen horoskopoa. Erabaki nuen Euskaldunon Egunkariako horoskopoaren bidetik jotzea izango nuela onena. Barre egingo duzue, baina atal berria Martxeloren Horoskopoa bezala bataiatu nuen, Egunkariako zuzendariaren ohoretan. Horoskopoari zentzurik ikusten ez nionez, saiatu behar nuen irakurleari garbi uzten irakurtzen ari zena norbaitek idatzitakoa, norbaitek sortua zela, eta beraz, egiantzekoa baina gezurra, ipuin hau bezala. Eta hiru lerroko ipuinak idatz nitzakeela konturatu nintzen, haikuak, telegramak, epitaflak, zenotafioak, literatura. Horrexek poztu ninduen kafearen mikatzak bezain.

Ez zen hori, hala ere, horoskopoak eskaintzen zidanetarik ederrena. Ederrena horoskopoarekin mendeku har nezakeela konturatu nintzenean etorri zen, irribarre maltzur hori eta bihotzaren azkartzea, mendekuaren goxoa aurrez dastatzea. Esango didazue mendekuak ez dakarrela lasaitasunik arima durduzatuetara, baina ez dut ezagutzen modu batera edo bestera inoiz

mendeku hartzen saiatu ez denik. Mendeku txikiak nahi baduzue, baina mendekuak azken batean. Inori diosala ukatzea izan daiteke modu bat, ez dugula inoiz ezer barkatzen erakusteko. Jaso dugun kolpe bakoitzeko, bihotz zati bat erori zaigu denboraren osinera, non harrizko bihurtzen diren isurtzen ez ditugun malkoak. Harrizko, esaten ez ditugun hitzak. Eta geu, txikitik bezain hauskor, harriz betetako bihotzekin borrokatzera irteten gara egunero, armairuan kausitu dugun irribarrerik ederrena jantzita, ezin ikusi ditugunei erakusteko. Lehendakariari, esate baterako.

Lehendakariak, hemendik aurrera hala deituko diogu, potroak ukituko zizkidan baina baita nik berari ere. Zalantza egin nuen egunetan, zein ote zitekeen lehendakaria haserrarazteko erabili beharreko tonua. Zerk egingo ote zion min zorrotzagoa, nazkarainoko laudatzeak ala erdeinurainoko bazter uzteak. Hurrengo alea argitaratzeko falta ziren hiru astetan ezin izan nuen burutik kendu, eta idatzi nion horoskopoa nola hartuko zuen pentsatzen eman nituen, gorputzez hemen baina gogoz urruti ematen ditugun momentuetatik asko. Lehen kolpeak behar zuen izan ez gogorregi eta ez leunegia, ez zitalegi eta ez onbera. Ez zuen susmatu behar beste horoskopoko guztiak betelana ziren bitartean, berea idazterakoan arima, izerdia eta odola bota nituela. Ez hiru lerro idaztea lan handia zelako ni bezalako alfer batentzat, esaldiak zehatza behar zuelako baizik. Neurtua. Hortxe zetzan bere eraginaren indarra. Ez zuen perfektua izan behar, edo ez, gaizki ari naiz, perfektua izan behar zuen lehendakariari perfektua ez iruditzeke ahalegin horretan, susmo beltz batek har ziezaion gogoia. Berarentzat hartu behar zuen baina ez zuen berarentzako bakarrik izan behar, orokorra behar zuen, edozeini esateko modukoa baina lehendakariari esan ezker, barrenak sutan jarriko zizkiona.

Beldur nintzen ez ote nuen asmatu, egunak pasa ahala esaldiak gero eta gutxiago gogobetetzen baininduen. *Aurre-juzkuak bidelagun eskasak dira. Sentitzen duenak ezagutzen du.* irakur zitekeen Taurusi zegokionean, eta nik ale hura argitaratu osteko lehen bilera nuen itxoiten. Ez dakit ba ote den inor bilerak egitea atsegin duenik, eta inor balego, ez hala ere lehendakariak bezainbeste. Aste osoan irentsi beharrekoak guri botatzen zizkigun ostiralero bileretan. Hain zuen atsegin guztion gaintetik zegoela aditzera ematea, hain zitzaizkion kilikagarri bera gabe zer egingo ote genuen esaten zioten zakil-jaleen hitzak. Baina bilera hartara ez zen hain harro azaldu. Oraingoan, potroak ez ezik, bihotza ere ukitu nion.

Nik banekien bere gogor itxura horien guztien atzean afektu gabezia latza zegoela, ez zegoen psikologoa izan beharrik hain gauza nabarmena ikusteko. Egia da arrak ez garela sekula izan afektua erakutsi zaleak, salbuespenak salbuespen, baina bere jarrerari gehiegizko harrotasuna zerion. Eta hori zen harrigarria. Ez zen harroputza, berea ez zen harrokeria, minik ez hartzeko eraikitzen ditugun oskol horietako bat baino ez zen, ziur eta harro agertzen ziguna beldurrez akabatzen bizi zen haur haren, lehendakariaren bihotza. Beraz, mindu zuena ez zen izan aurre-juzkuen kontua, bigarren esaldia baizik. Nire arrebaren idazmakina zaharra neureganatzeko beste taktikarik ez eta, neurea ere bazela esateko itsatsi nuen Napartheideko pegata batetik etorri zitzaidan, oroitzapenak etorri ohi diren gisan, esaldia: *Sentitzen duenak ezagutzen du.* Sentimenduetarako ezina aurpegiatzen nion, hortaz, eta horrek eman zion min. Agian, inoiz izan ez zituen harremanetan pentsatuz, negar egingo zuen ohean etzanda, neuk ere batzuetan egin izan nuen bezala.

Geure buruari aitortzen ez dizkiogun akatsak besteei aurpegiatzen dizkiogula iruditzen zait batzuetan, ez dakit benetan hala gertatzen den ala guztiok ditugun akats antzekoak, proportzioak desberdinak izan arren. Esan nahi dut neuk ere badakidala egoskorra eta tematia izaten, eta lehendakaria bezain nardagarri eta anker izaten ere bai. Beti iruditu izan zait barregarria, zozoa beleari ipurbelzka entzutea. Beraz, irudipena izaten dut batzuetan, besteen akatsak jasanezin bihurtzen dituena, geuk ere antzeko jokamoldeak ibiltzen ditugula konturatzeak ekartzen duela. Geure ispilu direlako gorrotatzen ditugula lehendakariak, norberak berea. Baina egia da, bestalde, ez dela jaio lehendakaria jasango duenik. Bere ibilbide oparoan, tankera askotako taldeetan jardun du: dantza taldean, burges gehienei bezala berari ere atsegina baitzaio folklorea, edo xake taldean, burua hotz mantentzen laguntzen ziola eta. Sekula ezer garbirik esan ez didaten arren, inoiz Elkarrin ibilitakoa dela esaten duen zurrumurru edo kondaira antzeko bat badabil hortik, eta alde egin zuela guztiekin haserretuta, taldeko beste kide guztiak elkarriketarako ezintasuna leporatu ziotelako.

Eta egia da, baita ere, lehendakariaren kopeta zimurtzen eta aurpegia iluntzen sumatu nuenean pare bat zentimetro hazi banintz bezala sentitu nintzela, neure garaipenaz jakitun, neure ezdeusean boteretsu. Eta dena horoskopoiari esker. Sinestezina, esango duzue, neuk ere hala esaten bainion neure buruari. Bi esaldik lehendakaria kikiltzea lortu zuten. Banekien aspaldiko partez lo ondo egingo nuela. Etxera joan eta ohera sartu nintzen. Eta horoskopoiak eskaini ahal zizkidan aukerak aztertuz hartu nuen, gozo, lo.

-II-

Ez naiz soziologoa, ez naiz antropologoa eta ez naiz psikologoa, baina esango nuke gizakiari atxikia agertzen dela boterea, eta borrhoroak bezala, badituela gutxienez milaka aurpegi. Are, besterik diogun arren, ez dut boterea atsegin ez duenik ezagutzen. Ez dute guztiak, haatik, inperio handietako errege izan nahi. Baina boterea hori baino konkretuago, zehatzago ikus dezakezu zeure eguneroko bizitzan. Bakoitzak bere botere eremuak bilatzen ditu, inork potroak ukituko ez dizkion esparru bat. Esparru hori izan daiteke publikoa edo pribatua. Eta pribatuaren barruan, izan daiteke ekonomikoa edo intimoa. Ez naiz hasiko orain esparruen banaketa bat egiten, baina badakizue zertaz ari naitzaizuen, ez? Botereak menpekoa behar du, boterea izateko, eta viceversa. Eta nik lehendakaria menpean hartu nuela ikusi nuenean, boterearen gozoa dastatu nuen eta, zergatik ukatu, gustatu zitzaidan.

Beraz, horoskopoa idaztea hain gauza gutxitzat edukitzetik, nire indar guztiak horoskopoiaren aukerak profitatzera bideratu nituen. Zodiakoari buruzko liburuak bilatzen nituen inguruko herrietako liburutegietan, neure herrikoan lotsatu egiten bainintzen. Ni bezalako sasi-idazle batek hori baino gauza serioagoak irakurri beharko lituzkeela pentsatuko zuten beldur nintzen. Eta misterioa, izen ona eta intelektual ospea mantendu behar nituen, neure herriko liburutegian bederen. Bidenabar esanda, nobela erotikoak hartzen ere ez nintzen ausartzen, aurreko arrazoi beragatik, nik uste. Klasikoak irakurriko nituela suposatzen zuten. Baina niri klasikoak ez zitzaizkidan asko axola garai hartan.

Esan dezaket gaur, denborak sortzen duen distantzia malgu honetatik, aspaldiko partez, bizirik sentitu nintzela horoskopoa idazteak ekar zekizkidakeen aukerak aurrekusten hasi orduko. Gutxien uste duzunean, ate bat irekitzen dizu patuak, asko pentsatu gabe zeharkatzen duzu, eta zure bizitza, aldatu da betirako.

Ez dut esango horoskopoa idazteko bizi nintzenik, gezurra baita, baina idatzitakoa entregatzeko epea hurbiltzen joan ahala, urduritzen hasten nintzen. Harra sortua zidan horoskopok barruan. Hasieran, batik bat lehendakariagatik. Taurusi jartzen nion gogoak gaur barregura ematen dit, baina oso lan serioztat nuen orduan lehendakariari potroak ukitzearena, hil ala biziko eginkizuna nire horoskopoarekin bere barrenak nahastea. Lehen horoskopoarekin izan nuen arrakasta errepikatzea zen bigarreneako asmoa, eta ahal izanez gero, koska pixka bat estutzea. Besteentzakoak, Libra edo Scorpiusentzakoak, edozein klasikori ostutako bi esaldi izan zitezkeen, Senekari adibidez, edo Egunkariatik zegoen-zegoenean fusilatutakoa, baita Arantzazuko egutegian aurkitu ahal dituzun esaera zahar pedagogiko horietarik ere. Baina Taurus ez, hori nirea zen.

Maitea, zure hiztegian hitz goxoak sartzen hasteko garaia duzu, polit hori. izan zen bigarrenean jaurti nion gezi pozoitsua, eta erantzuna ikusita, bete-betean asmatu nuela iruditu zitzaidan. Lehendakaria zen ezagutzen nituen adiskide, lagun, ezagun, morroi eta zomorroi guztien artean gozakaitzena. Afektua erakusten bazenion atzera egiten zuen. Ez dakit horrek psikologian zein izen hartuko duen, baina nabarmena zen intimitateari beldur ziola. Beraz, herren egiten zuen hankara egin nion tiro eta ez nuen hutsegin. Aurrekoan baino are haserreago agertu zen hurrengo bilerara, begiak sutan eta ahotsa oihu bilakatua, aizto kamuts, gure belarriak kolpatzen. Bere ezinak aurpegiratuko nizkion, baina ez beroaldi batean, beste askotan ohi dudan legez. Ez, pozoiak dosi txikietan behar omen duenez, nik ez nuen batere presarik esan nahi nizkion guztiak esateko. Hilean behin jasoko zituen geziek ez zuten hilko, baina ederki zulatuko zioten bere ziurtasuna, bere harrotasuna, bere eskola. Uste izan nuen, amiñi bat apalduko balitz, banukeela bihotzean zeraman gizakia ezagutzeko aukera eta betarik. Edo hori zen, neure buruari ezetz esaten nion arren, garai hartan beste ezeren gainetik desiratzen nuena: lehendakariak gizakia zela erakustea, erratzen zela aitortzea, inoren gainetik ez egotea bere karguak eskatzen zuen ardura aitzaki hartuta.

Ez dakit nola sortu ziren gure arteko tira-birak, ez dakit noiz hasi ginen elkarri mokoka, oilategi bakarrerako bi oilar gehiegi zirela noiz konturatu ginen. Lehendakaria hasieratik zegoen. Euskara elkartearen sortzaileetako bat zen eta aldizkariaren bultzatzaile nagusia ere bai. Ni aldizkaria martxan zegoela igo nintzen, eta ez zidaten inoiz barkatu, aldizkariari ikusten nizkion akats ugariak hasierako lan-taldeari aurpegira bota izana. Kexa eta aldaketarako asmo oro, beretzako hartzen zituen, bere aurkako erasoak balira bezala, eta hori ez da ona osasunarentzat. Ez zerbait hobetu nahi duenaren osasunarentzat, ez lehendakariaren beraren osasunarentzat, ez eta aldizkariaren osasunarentzat ere. Eskasa baitzen, aldizkaria. Ez dakit herri ekimen guztietan hala den, baina boluntarismo soilak ezin du miraririk egin, eta denok izan arren beharrezko, ez geneukan guztiok helburu berdina. Eta ez geneukan guztiok garbi, garbi ez geneukan helburua lortzeko jarraitu beharreko bidea. Gogoan dudan lehenengo haserrealdietakoa erabili beharreko euskara eredia zela eta izan zen, nola ez.

Lehendakaria filologoa da eta hala izango da hil arte. Ez dut ezer filologoen kontra. Hobeto esanda, ez dut ezer filologo heterodoxoen kontra, baina gorrotagarriak iruditzen zaizkit, itxiak, dogmatikoak, ortodoxoak, filologo soilak diren filologoak. Niri, berea oso ikuspegi murrizta iruditzen zitzaidan, eta lehendakariari, zabarra eta okerra nirea. Lehendakariaren ustez, herri aldizkariak tokian tokiko hizkera zuten oinarri, eta ez zuen euskara batua erabiltzeko arrazoirik ikusten, euskara batuaren auzia beste eremu batzuetan irabazi beharra zegoela argudiatuz. Nik esaten nion baietz, ez genuela guk salbatuko euskara, ez batua eta ez geure herrikoa, ez genuela gainera euskara salbatzeko egin behar aldizkaria, izatekotan, euskara izango zela gu salbatuko gintuena eta ez alderantziz. Tokian tokiko hizkerak batua aberasteko beharrezkoak genituena, baina geure herriko hizkera ezaguna zitzaigunez, egin genezakeela ahaleginen bat euskaldun zahar alfabetatu gabeei euskara batua irakasten hasteko. Edo geure herriko esamoldeak euskara batuan txertatzeko. Eta ahal genuen neurrian, hedatzen hasiak ziren okerrak zuzentzeko. Esate baterako, nik esaten nion lagun koadrilan banituela neskei toka hitz egiten zietenak. Bazirela neskak, euren artean toka egiten zutenak. Bazirela egoera honekin potrotaraino zeudela esaten zuten neskak. Eta bazirela eguna potroak (eurenak) ukitzen pasatzen zuten neskak, zaila izan arren.

Baina lehendakaria filologoa zenez, hots, autoritate bat erredakzioko beste ezjakin guztiontzat, isiltzea tokatzen zitzaidan euskara ereduari zegokionean. Eta halakoetan lehendakariaren poza ikustekoa izaten zen. Goitik behera egiten zidan so, idazle-usteko morroi bat baino ez haiz, ezin didak irabazi esanez bezala. Nik, haur errebeldeen gisan, lan-taldeak erabakitakoa ez nuen errespetatzen, eta ez nuen errespetatu herriko hizkera erabiltzeko lehendakariak egin zigun "gomendioa". Eurentzat oso-osorik, euren herri maitea eta euren hizkera sortzez garbia. Ez duzue ikusten Mitxelena eta Arestiren ostean, euskara batuari eman behar dizkiogula gure indar guztiak! esango nien, baina ez geunden Euskaltzaindian eta amore eman nuen. Guk salbatuko genuen euskara. Ezingo zitzaigun behintzat espiritu olinpikoa ukatu, garrantzitsuena parte hartzea eta saiatzea delakoa, sarri antzean entzun baikenuen ostiralero bileretan.

-III-

Horoskopon bilatzen nuen aterpe. Bai, inozokeria galanta da, badakit, baina horixe zen nire inperio bakarra. Orain hemen kontatzeak zentzurik ez duen bizitzako beste botere-guneetan, hor sar ditzakezue adiskideak, lana, maitasuna, dirua, ikasketak, baina ez noa jarraitzera, honek Txomin Agirreren esaldi horietako baten antza hartuko du eta, bestela. Ba, hori, gauzak ez zihoazen ondo, iragana oroitarazten zidan lagun bat kalean topatzeak izutu egiten ninduen garai hartan. Eta bizitza, etorkizunerako planak egiten ari nintzen bitartean, errealitatearekin talka egiten nuen momentu hori zela konturatua, nahastua nenbilen, galdua, beti amildegiaren ertzean, ekilibrista lez denbora futuroa eta iragan denbora bat egiten diren hari mehe horretan. Horoskopoa idazterakoan neure buruaren jabe sentitzen nintzen eta lehendakariarekiko harremanean erosoago ere bai. Baina ez harreman horretan soilik. Hirugarren aleko horoskopoa idazterako, horoskopoa nik uste

baino jende gehiagok irakurtzen zuela susmatu nuen, bat baino gehiago etorri baitzitzaidan azalpen eske, gurea bezalako herri txikietan ahoz ahoko informazioak hartzen duen abiada ikaragarriari esker, herri osoak baitzekien jadanik, neu nintzela Martxelo, herri mailako kontzentrazio edo manifestarako atxikimendua eskatzen zioten poeta.

Nire frustrazio askoren zabor-ontzia bihurtu zen handik aurrera horoskopoa. Lehendakariarekikoan ez ezik, lagunetik harremanetan ere aldaketak sumatu nituen, batez ere, euren horoskopoa ezagutzen nuenetik maiteenei mezuak bidaltzeko erabili nuelako. Nik esaldiak askatzen nituen hegan egin zezaten eta lagunak etxeetako leihotetan pausa zitezten. Behar nituela esan nahi nien, baina harroegi laguntza eske ibiltzeko, zenbat maite nituen esateko erabiltzen hasi nintzen horoskopoa. Oraindik ere asko maite dudak Sagittarius bati idazten nizkion politenak hasieran, *Neguko eguzkia zara* eta antzekoak. Laster hartu nuen horoskopoa egiteko metodoa: Taurusi egurra, maite nituenentzako animoak, hitz goxoak edo eurekin asko gogoratzen nintzela adierazteko hitzen batzuk, eta neuretzat zozokeriaren bat gehienetan.

Irakurria izateak modu batera edo bestera aldatu egiten zaituela esango nuke, eta testua sartzen dela idazlearen eta irakurlearen artean. Harrigarria da, esate baterako, idazleak direlako ezagunak izan ez balira emakumeen gorputzik usaindu ere egingo ez zutenek, zein emakume ederrak hartzen dituzten esposatzeko. Ezkontzeko. Inbidia, esango duzue, eta bai, halaxe da. Baina ez emakume ederengatik. Idazten dutenagatik, ahalmenagatik, talentuagatik baizik. Ondo idazten jakitea dohain handia dela esan zidan behin neska batek. Nik idatzitako zerbait irakurrita hunkitu zen neska batek. Eta azkenean, testua bera ni baino nahiago zuela esan zidan neska batek. Testuak, beste modu bateko komunikazioak, harremanak aldatu egiten ditu. Ez beti onerako, ordea. Horoskoporako idatzi nuen esaldi batek, urteetako harreman iraunkorra deusezte bidean jarri zuenean esate baterako.

Txiki-txikitatik ezagutzen nuen koadrilako lagun batek, txikitan liburutegian elkarrekin pasatutako ordu guztiak eta gero, bere berbak errespetuz eta kasik miresmenez entzuten nituen lagun bakarretakoak, Iñigok, Maiatzaren 11n betetzen zituen urteak. Eta beraz, Taurus zen. Ni lehendakariarekin itsututa ibili nintzen garai hartan, eta ez nintzen konturatu harentzat idatzitakoak Iñigok ere irakurriko zituela. Lehen bi horoskopoeekin ez nuen izan arazorik, baina hirugarrenak hautsak harrotu zituen. *Egoskorra eta petrala zara. Ezkondu zaitzez Papua-Nueva Guineara*. idatzi nuen okerreko begitik sartu zitzaidan Taurus bakarrarentzat, lehendakariarentzat. Nik horoskopoa entregatu eta aldizkaria inprentara eraman zuten egunean bertan esan zigun Iñigok, hurrengo udazkenean zela ezkontzekoa. Beldurtu egin nintzen, segituan jabetu bainintzen gaizki ulertuak ekar zitzaizkeen gorabeheraren larriaz. Baina ez zitzaidan egokia iruditu neure burua zuzitzen hastea, ez baineukan bere kontra idatzitako ezergatik azalpenik eman beharrik, lehenik eta behin, ez nekielako ezkontzaren berri horoskopoa idazterakoan. Gainera, ez nuen inoiz pentsatuko Iñigok nigandik holakorik esperoko zuenik, baina, antza, erratua nenbilen.

Neskalagunarekin hasi zenetik oso gutxitan deitu zuen Iñigok gurera, gure arteko adiskidetasuna hoztu egin zen, baina beti errespetuz aritzen ginen, bai gure artean eta baita bata besteari buruz aritzean ere. Horregatik harritu ninduen telefonoa niretzako zela esan eta nor zen galdetu orduko, Iñigo entzuteak. Ez nuen antzeman deiaren zergatia eta, zer nahi ote du honek orain, atera zitzaidan telefono deiak komunez ateratzen zaituenetan jartzen zaizun

umoreaz. Lehor antzean hartuko nuen, ez dakit, ez dut gogoan, baina bere hitzak bai: Gure artekoak egin dik, aurrerantzean hi hor eta ni hemen. Mutu gelditu nintzen, ez nuen ezer ulertzen. Ez baldin badaukak lagun bati pentsatzen duana esateko potrorik, ez dik merezi hirekin denbora galtzerik. Zertaz ari zen galdetu nahi nion, baina hitzak ez zitzaizkidan ateratzen, zerbaitek eztarria estutuko balit bezala. Ez nian uste egoskor eta petraltzat nindukanik, baina orain bazekiat. Eta ez nauk munduko beste puntara ezkonduko, hiri poz hori ez emateagatik bakarrik. Jode, ederra egin diat oraingoan esan neure buruari eta hitz egiteko adorea biltzen ari nintzela, eten egin zen komunikazioa. Eten egin zen, betirako, urte askotako komunikazioa.

Ez nion inori esan horoskopoa lehendakariari potroak ukitzeko erabiltzen nuela, baina lñigori esan egin behar izan nion bere aurka ezer ez naukala sinets zezan. Ez dakit ordea, gezur bat estaltzeko erabili ohi diren beste gezur horietako bat izango zela ez ote zuen pentsatu. Beldur naiz, harrezkero gure arteko harremana ez baita etorri bere onera zeharo. Ez dakit urteetan aurrera goazen bezala bakoitzak bere bizimodua egiten duelako izango ote den, baliteke, baina esango nuke horoskopoa hura izan zela gure aspaldiko adiskidetasunaren epitafioa. Eta adiskidetasun hautsiaren errua behar nionez norbaiti bota, erabaki nuen lehendakariaren erruz izan zela, bera baitzen, batetik, idazlea neu nintzela eta horoskopoa bezalako langintza sortzaile eta jasoak neuk egin beharko nukeela bota zidana, eta bestetik, nire amorraren sortzaile eta aldi berean hartzaile zen heinean, lñigo haserrarazi zuen testuaren errudun.

-IV-

Errudun sentimenduaren mekanismoa ulertzen zail da, esplikatzen zail da. Ez dut uste jaso genuen heziketa kristauaren ondorio denik soilik. Boterea bezala, gizakiari atxikia agertzen den sentimendua denok ibili dugu barrenak erretzen. Ez da gainera norberak egin edo esaten dituenengatik bakarrik pairatzen, areago, bakoitzaren sozializazio prozesuan gehienetan besteek sortzen edo sartzen dute gugan, eta harremanei eusteko lokarri sendoa ere bada. Eta behin testu-liburu batetik fusilatua dirudien lehorkeria hau esanda, esango dizuet lehendakaria benetan gorrotagarri bihurtzen zuena, bere sentimenduak ez erakusteko seta hura zela. Erredakzioko edozein umiliatu (neska bat negarrez utzi zuen denon aurrean) eta lasai geratzen zen. Bilerarekin jarraitu beharra geneukala esaten zuen. Gupidagabe jardun ostean, ordea, errudun sentimendua gailenduko zitzaiola pentsatzen nuen, baina ez, ez zuen eginaz damurik izaten, inoiz. Ez zekien zer zen errudun sentimendua, antza. Neuk ere ez dut atsegin barkamen eske ibiltzea, baina ibili beharra tokatu zait. Lehendakariak ez zuen barkamenik eskatzen.

Zubiak pasa ahala dinamitatzen dituzten horietakoa zen lehendakaria, eta miresmena ez, miresmena ez baita halako gauza arrunta, baina horrek sortzen zuen nigan halako sinpatia arin bat, batere funtsik gabea, eta inbidia pixka bat ere bai akaso. Agian, beti ondo geratu behar horrek nekatu ninduenean faltan bota nuen adorea ikusten nion. Bizitzan erabaki asko hartu behar dira, eta ez da gozoena, azken batean munduan bakarrik gaudela

onartzen dugunean hartu beharrekoa. Aske izan ala gozo lotuko gaituzten kateak bilatu. Lehendakariak aske izatea erabaki zuen, zenbat eta lotura gutxiago, hobe. Eta ez naiz ari ardurak ez hartzeaz. Ez naiz ari bazter batean ezkutatua bizitzeaz. Lotura afektiboak ziren lehendakariak nahi ez zituenak. Besteekiko harremanetan horregatik izan ohi zen hain hotza. Eta, alde horretatik, bere erronkak ematen zuen zer pentsatua, ozen esaten ari baitzitzaigun, gogorregi jarduten zigun bakoitzean, Maita nazazue naizen bezalakoa, edo ez nazazue maite. Nik sekula ezin izan nuen gorroto bezainbeste maite.

Gure arteko ezinikusian bazen gainontzeko gizakien harremanetan oso garrantzi eskasa duen auzi bat: literatura. Normalena da gutxi irakurtzea, irakurtzen dena denbora pasa irakurtzea edo ez irakurtzea. Inork ez du (dena ohitura, dena errua, dena barkamena) koblaririk behar. Eta literatura katakunbetako eginkizuna bihurtzen ari zen garai hartan, harrigarria egiten zitzaidan, eta pozgarria ere bai, literatura zalerik aurkitzea ene inguruan. Lehendakaria zen ezagutzen nuen bakarretakoa. Herri aldizkaria martxan jarri zutenean, berak hartu zuen liburuei buruzko iruzkinak (kritikak esatea gehitxo litzateke) egiteko ardura. Baina ez zituen izenpetzen, eta nik gerora jakin izan nuen hain liburu eskasak gomendatzen zituen hura, irizpiderik gabeko testu epel haiek idazten zituena, lehendakaria zela.

Egia bada irakurri nahiko genukeena idazten dugula, egia izango da idatzi nahiko genukeen hura irakurtzen dugula, edo zehatzago esateko, idatzi nahiko genukeen hura irakurtzeak baino ez gaituela asebetetzen erabat. Egin ditzakegu irakurketa osagarriak, irakur ditzakegu berehala ahaztuko ditugun liburuak, baina maite ditugun liburuengatik ezagutuko gaituzte. Nik hala ezagutu nuen lehendakaria.

Hemen aipatzea merezi ez duen liburu txar bat gomendatu zuen herri aldizkariako iruzkinean, eta niri auzo-lotsa eman zidan. Ezin nezakeen ulertu hain liburu eskasak gomendatzea, eta ezin nuen jasan hain iruzkin epelak egitea. Beharbada astuna egingo zaizue baina, lehendakariaren iruzkin bat ekarri nahi dut hona esan berri dudanaren erakusgarri. Izenburua du politena: *Inguru urbanoaren lirismoaz*

Urtea amaitzeko gehienoi arrotza egiten zaigun liburu mota bat gomendatu nahi dizuegu, poesi liburu bat hain zuzen ere.

Norbaitek atzera egingo du agian poesiaz ari garela jakitean, baina bere ezaugarriak direla eta, dirudiena baino askoz errazagoa da liburu hau irakurtzea.

Batetik gai ugari bezain desberdin jorratzen ditu autoreak: hala nola progresoa, zientzia, natura, harreman pertsonalak, etab. Ez ditu ordea liluraz estaltzen baizik eta jarrera eta egoera ezkorrez baliatuz gai horien irudi berri zein bitxia lortzen du.

Poemak osatzen dituzten hitz eta esamoldeek ez dute ezkutuko esanahirik gordetzen. Irakurleek jasotzen duten lehenengo inpresio hori da poetak adierazi nahi izan duena, eta ez sinbolismoz estalita egon zitekeen beste edozein gai. Bigarren ezaugarri bezala, poema gehienak inguru urbanoa dute kokagune. Naturaren eremu bukolikoa alde batera utzita, makinak, jendetza, zarata etab. islatzen dituen esparru urbanoa da poemaren muina osatu eta babesten duen elementua.

Dena den, beste estiloko zerbait aukeratu nahi izanez gero, izango dugu bai non aukeratu Durangoko azokara hurbiltzen garenok.

Ez dakit zerbait gehitu beharrik dagoen nire amorruren zenbaterainokoa azaltzeko. Irakurzaletasuna sustatzea modan dago, eta idazle naizen aldetik ezin dezaket esan gaizki iruditzen zaidanik, besteak beste, geure teilatuari harriak botatzea litzatekeelako, baina nahiago ditut urtean lau liburu on irakurtzen dituztenak, hamabi txar irakurtzen dituztenak baino. Esango didazue oso zaila dela liburu bat ona ala txarra den erabakitzea, norberaren gustuen arabera aldatzen direla irizpideak, bakoitzak bere filiak eta fobiak dituela, eta kaka zahar hori guztia, baina bada huts egiten ez duen irizpide bat.

Ez dakit Borgesi irakurri nion, Juan Garziaren itzulpenean, edo beste nonbaiten irakurri eta nire buruak Borgesi lotzen dion irizpidea. Baina gutxi gorabehera, honako hau esaten du: klasikoak klasiko bihurtzen dituena, ez dela munduan askok eta askok uste duten legez, hizkuntzaren edertasuna edo kontatzeko modua bera, idatzi dena nola idatzi den alegia, baizik eta idatzi denaren indarra, idazlearen kontatu beharra bera dela liburu bat klasiko bihurtzen duena. Adibide gisa jartzen zituen Cervantes eta Dostoievski. Esaten zuen ez zutela hizkuntza menperatzen, bazituztela akatsak sintaxian eta gramatikan, baina euren idazle senak erakusten zuela liburu onak idazteko ez dagoela zertan ondo idatzi, ez duela zuzentasunak senak baino gehiago balio. Kontatzen denak indarririk ez badu, ez zaigula axola behar kontatzeko moduaren edertasunak.

Agian ez zaudete ados Borgesekin, edo are, kontraesana iruditzen zaizue Borgesek halakorik esatea. Agian zuei ere hitz politikak errenkan jartzea literatura iruditzen zaizue. Ba, niri ez. Eta horixe da orain arte huts egin ez didan irizpide bakarra. Idazle senarena.

-V-

Hortaz, ez zen arraroa literaturaren bi ikuspegiak, lehenago edo geroago, talka egitea, eta ezin esan espero ez nuenik. Hala eta guztiz ere, ustekabeen harrapatu ninduen eta zauriak latzak izan ziren. Oraindik zornea darie berarekin kalean topo egiten dudanetan.

Lehendakariak eta biok eztabaida gogorrak izaten genituen lehenago ere, baina bazen bion artean errespetua bezala definituko nukeen zera bat. Ez zen lagunaren arteko errespetua, ez zen agian errespetua ere, baina bazen idatzi gabeko legeak ez hausteko konpromiso bat bion aldetik. Ez genuen sekula hitza eman, eman beharrik ez zegoela uste genuelako, eta, elkarrenganako gorrotoa benetakoa bazen ere, azken batean herri aldizkariaren proiektuan bagenekien bion ikuspuntuak zirela beharrezko. Bagenekien bion iritziek jendea alde batera edo bestera lerratzea bultzatzen zutela, eta neurri handi batean, ez zela hain diferentea bakoitzaren helburua.

Beraz, idazlea neu nintzela eta horoskopoa bezalako langintza sortzaila eta jasoak neuk egin beharko nukeela bota zidanean, ezin genuen imajinatu nola bukatuko zen abentura ero hura. Ezin genuen imajinatu batak bestea

hainbeste jipoituko genuenik. Izan ere, herri aldizkarian eman nituen azken hilabeteetan, egunetik egunera okerrago jartzen hasi ziren gauzak.

Horoskopoa bere aurka erabiltzeko baino ez zitzaidala axola konturatzeko ez zuen lehendakariak denbora asko behar izan. Eta nire sinesgarritasuna ahultzen saiatu zen, trapu zikinak erredakzioaren aurrean atereaz. Neuk baino ez nekizkiela uste nituen hainbat kontu zekizkien lehendakariak. Ez galdetu nola, neuk ere askotan galdetu baitiot neure buruari eta ez dut oraino erantzunik aurkitu.

Horoskopoarekin egiten nion mina jada ez zitzaion pairagaitz. Esaten nizkion kontuek ez zuten durduzatzen. Nik egindako ezerk ez zuen asaldatzen eta gainera, aldizkarian geratzen ginenotatik gehienak bere alde jartzea lortu zuen. Esate baterako, errefuxiatu politiko baten heriotza gertatu zenean, gaur ETBn kazetari lanetan dabilen lagun batek eta biok lana geure gain hartu genuen, albisteak merezi zuela uste genuelako, ez baitzegoen oso garbi nola hil zen errefuxiatu politikoa, zalantzak baitzeuden bere heriotzaren inguruan, zalantza asko eta susmo beltza. Egunak eman genituen albisteari zuku ateratzen, ikuspuntu eta iritzi ezberdinak batzen, ezagutu zuen jendearekin hitz egiten, ahal genituen argazki guztiak inguratzen, omenaldiaren inguruko xehetasunetan erreparatzen. Ez da ondo egongo nik esatea baina, aldizkari madarikatu horretan inoiz egin den lanik onena zen.

Alea inprentara bidali aurretiko bileran erabakitzen zen zein argazki eta zein gai joango ziren azalean, eta guk ez genuen duda egiten hurrengoan gure erreportajeak hartuko zuela lehen orria. Bada, lehendakariak aurre egin zigun, halako kontu bat azalean agertzeak ekar zitzakeen arriskuez hitz egiten hasi zen, udaletxearen diru-laguntza bermatu behar genuela esanez, liberatuak kikilduz soldatarik gabeko lanpostu baten ezbeharrarekin. Guri hain iruditzen zitzaigun nabarmena albistearen garrantzia, ezen ezin genuen sinistu bozketan lehen orria nekazaritza biologikoari buruzko erreportaje batek eskuratzea.

Sutan jarri ginen, eta aldizkaria uztea erabaki genuen. Bai, errenditu egin ginen. Nik neuk behintzat, ez neukan lehendakaria begien bistan ikusteko batere gogorik. Eta hurrengo egunean bertan alde egin ez banuen, oraindik egitekoak nituelako izan zen, eta azken agurreko horoskopoa prestatu nahi nuelako.

-VI-

Nitaz ez ahazteko moduko agur bat prestatu nahi nion lehendakariari, eta nire indar guztiak jarri nituen helburu horren xerka.

Osakidetzan lan egiten zuen ezagun bat limurtu eta lehendakariari buruzko osasun-txostena inguratu nuen, ez gutxi ordainduta izan bazen ere, beste ezerk baino gusturago jarri ninduen. Bere ahulezia puntuak non ziren jakin ahal izango nuen, azkenean. Izan ere, gerra psikologikoa egin diezaiokezu baten bati, eta emaitza onik ez jaso, baina eritasun batek erasotzen gaituenetan, inoiz baino ahulago gaudenetan, norberak bere burua zigortzeko joera erakutsi ohi dugu gizakiok, eta hor bai beti ateratzen garela galtzaille. Geu

baikara geure buruari min handiena egin diezaiokegunak. Geu gara geure buruaren etsairik beldurgarrienak.

Erraza neukan. Ezarriak bizitza osoan zehar lan asko eman ziola nabarmentzen zen txostenean, eta lehendakaria erretzailea zenez, ez nion buruari gehiegi eragin behar izan lehendakariaren puntu ahuletako bat ezarria zela antzemateko. Txostena irakurri orduko etorri zitzaizkidan gogora jada ahaztuak nituen eztulak eta karkaxak. Eta karkaxa bere bihotzera botatzea deliberatu nuen.

Egia esan, pena apur bat ematen zidan aldizkaria uzteak, urte asko baitziren, jende asko baitzen atzean uzten nuena. Baina ez nuen errukirik izan, eta nire azken oparia idatzi nion lehendakariari: *Eztarriko minbiziak sortuko dizun mina, ez da ezer izango lagunen galerak sortutakoaren aldean.*

Eta utzi egin nuen aldizkaria, betirako utzi nion horoskopoa idazteari.